


Bizkaitarrei Bizkaieraz

ZAR

371n. zenbakia • 2011 Ekaina



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

baserria II.
**Munetxebarri
jaiotetxea.**



**Izarren
ereinlaria**



**Euskalerrria
edo Euskadi**

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2011-2012 IKASTURTEA

BIZKAIERA IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com



Alberto Atxikallende

Bermeoko osagillea zan.

Sabino Aranaren jarraitzaille andia eta koinatua.

1918an Bilbon Filarmonika Antzokian, konferentzi bat emon eban, Sabinon oroimenean.

Beren itzaldian Ruben Darioren itzak azaldu eban. “Las velas de los vascos, hostigados por odios ciclones”... eta berak ez dauala baimenduko gure aberria Cartago izatea, baizik Euskadi.

Beren bizibidea aparte, osagile au, dramatikazalea zan, eta kazetari modura idatzi eban Euskadi, Nervion, Hermes eta La Tarden.

Lan zientifikoan egin ebazan “Cuadernos de Lourdes, Estudio Médico Legal 1918 y Lourdes y la Ciencia.

Teatro arloan, Bermeon, 25 abenduan 1914an obra bat estrenatu eban “El pueblo del Año”.

Onela, musikako laguntza bermeoko organista Jose de Erauzkiñek emon eutsen.

Organista onek, iru mutikoekaz ibilli zan, Bermeoko Magdalena abestiko asieragaz, Laburdiko eta erriko soiñuak.

Gure osagillea Argentinara emigratu zan.

Argentina bertan estrenatu eban bere bigarren obra “El Médico de Aromita” 1922 Laurak-Bat antzokian.

Agustin Arrien

BASERRIA II. ZATIA


MUNETXEBarri JAIOTETXEA.



1.- **Jabetasuna.** *Munetxebarri* izeneko Baserría Bizkaiko **IGORRE** (Yurre) deritzon errien aurkitzen da. Elexalde *Munegi* auzoan. Bilbotik 22 kilometrora.

1.855 urterako Francisco Amorrotu Jauna, Munetxebarri etxearen Jabea zan.

Francisco AMORRORTU ta Juanita BUZTINZA senar-emazteak.



2.- **Zer-zelangoa.** Kanpotik begituta, aurrekaldeko zabaleran, 15 metro deukoz. Aurretik atzeraño, 19 metro. Beetik goraño, 10 bat metro.

Beko solairuan, ataria dauko erdian, ta leio txiki bi. Eskillarea, bigarren solairuko ateraño.

Solairu onetako barrualdean: ukullua (bei, idi, asto, olo, koneju, txarri-toki ta lanabesen gordelekutzat).

Bigarren solairuan: sutondoa, logelak, lau leio ta balkoia. Barru aldera: areto edo saloia. Erdiko ormea ta onen ostean: lastatxi ta bedar sikue gordetako lekuek. Komuna be bazter egoki baten aurkituten da.

Irugarren solairuan: ganbarea (ortuari, jaki ta jantzi leor-lekua).

3.- **Labea.** Etxearen aurreondoan *Labe bat* erai-kita dago. Iru orma ditu: bi alboan ta bat atzean eta talletua. Artean, sutegi edo erretegia osatzeko labe-arri, labe-zerua ta jagokon labeakoa eratuta daukoz. Su egin, berotu ta txingar naikoak batzeko, bazterretako otak eta sasiak balio andikoak izaten dira. Denbora luzetxua bear dau neurriko beroa lortuteko.

Labakoa ondo egiteko tresna batzuk dagoz: ipizkia (labea garbitako), labaparea (erregai laban sartuteko), ...

Ona emen erregai batzuk: ogi zurie, mokotzak, artoa, pamintxea...

1.934n urte ezkerostik makiña bat aldaketa egin da *Munetxebarri* baserrian.

Aldaketa orrean artean Labea desagertu da, etxeaurreko zelaia zabaldutearren.

4 - Ingurunea. Baserriaren inguruan dago *etxaguntza*: ortua, landuteko lurak (garia, oloa, arto,

naiz nabotarakoa, frutu-arbolak, belardiak, piñudiak, errekatxua, iturria...). Apur bat urrinago, basoak, piñuz beteta.

Begientzako baztar atsegiñak. Osasunerako aide egokiak. Artu emonetarako, erri edo kaleraño, amar bat minutuko bidea.

Mendi aldean daukot,

baserri kutuna,
or jaio ta mundura
etorri nintzena.

Ori dot benetako
ama txit laztana
ezer baño geiago
maitzatzen dodana
ta berak be, benetan
maitatzen nauena.

Gorputz zabala dauko,

aurpegi zurista,
eta bustiñezko ormak,
agakaz lotuta.

Iru solairu ditu:
ganbara da bata,
sutea ta logelak
erdin ipiñita,
eta azpiko aldean
portala ta korta.

Egon-leku ederra

dot, neure etxean
udan ta neguan
bizitzeko eran.

Apur bat dago aparte
ondoko auzoan,
bake ta laitasunez
bizituz barruan.
Alantxe nai dot jarraitu
Bizitza guztian.





5.-**Sutondoa** (sutea, eskaratza, eskatza). Zalantza barik Munetxebarrin tokirik garrantzitsuen **Sutondoa** dogu. Izan be etxeko sarrerako ate ondoan dago. Be sue ta kanpai tximinie daukoz. Ontziek garbitako zikinduten dan ure leiopean dagon arritik kanporatuten da.

Bertan goxaldu, bazkaldu ta afaldu ta errezuak egi-ten dira normalean.

Esan leike: **Sutondoa Ikastexe Nausi Sakratua** dala bertan:

- Famili siñisdunak eratu diralako.
- Famili barriak konpondu diralako, izen-abizenak tinkotuaz.
- Euskaldunen **altxor bikañena**, **euskerea**, gizaldi-etan zear, zaindu ta indartu dalako.

6 - Ikusi edo entzun daigun, adibidetzat, **Sutondo-**an etxeko "aitetek" kontatu ei ebana:



“Azaldu bear dautzuet Parisko gexotegi baten ikusi neban osakuntza bat.

Eroan eben egun baten gixajo bat istar-azurra ausita, gurdi baten txirrinkeak azpian artuta edo. Gexotegi artako sendagille nagusiak eta bere urrengokoek arduraz begiratu ta ikusi eutsoen isterra gizon ari. Gero asi zan bakotxa bere eretxia edo aburuba adirazoten eta geienak inoen ankea kendu berko yakola bizia atara gure ba zan

Nagusiak, orduan, onetara berba egin eban: -“Isterra ebagiteko astia gero be eukiko dogu ta, bada ezpadan, lenengo ikusi bear da neuk aspaldian daukoda uste bat”

Uste ori izan zan ondatuta eukan istar-azur atala kendu,ta,ordez,ipiñi txakur andi baten azurra, zuzgatza edo arbolari mentua ezarten jakon antzera,ta ikusi ia oratuten eutsen azurrok alkarri.

Egin zan ba, ta eztago zetan esan zein ederto zainduko eben gexoa sendagilleak. Bai yojazan egunak, eta geroago te obeto joyan gizona. Isterra osatu jakon azkenean, oetik jagi zan eta ondiño makal, baña ankea lurrean ipinten eban. Mentua lortu zan, eta beste bear izanik ez egoan indarra artutea baño gizona osoro geratzeko.

*Baña, gure gorputzean, atal guztiak bardingeak izanarren, ain alkartuta dagoz danen artean gauza oso bat egiteko, ze bataz ezer daukonean, besteak, danak ezpadira be, batzuk beñepein, sarritan okertu ta moteldu ta gexotuten dira. Au da sendagillek **komplika-ziñoa** esaten dautsena.*

Au jaso zan an be. Guntzurrunetara jo eban gatxak, ezin eban txisik egin, puxikeak estanda egin bear eutsen gizonari ta bizia galdu bear eban, laster osabidieren bat artu ezik.

Sendagilleak ebiltzan gau ta egun zoratu bearrez, zer ete zan ezin igarrita, liburu guztiak artuaz ta zer alkartasun eukan azurretako gatxak guntzurrunekaz. Itxaropena galtzen asi ziran. Ezekien zer egin.

-Da, ¿il zan gizajoa?

-Ez. Dei egin eutsoen beste osagille entzute andidun bati. Onek itandu eban zer eukan eta zer egin jakon. Azaldu eutsoen gustia. Eta erantzun eban: -“ia eka-

rrizue ona gizon ori”. Eroan eutsoen ba, ta besotik elduta orma ondora eroanda agindu eutson:

-Altzaisu ankea gora, ia txixik egiten dozun.

Parra-parra, ederto egin be. Osagilleak benetasun andiegaz esan eban: Txakur baten azurra ipiñi dautsozuen ezkerre, ¿zelan arrano gura zenduen ba gizon onek bere bearra egitea, ankea altzeu ezik orma batera urreratuta?

*Au entzunda asi ziran an egozan guztiak barreka, ain benetan, eurai be txis-eragin eutzela aitetek bere ipuñeagaz. Berau ostera piperra baño benago edo serioago geratu zan, esanaz: **Alan zan edo ezpazan, sartu eizue kalabazan”**.*

**Barroeta ta Amorrortutar Klaudio
Munetxe (Bilbon, 2011-01-27)
Euskal astea**



Zamarripa Paulo



Pablo Zamarripa Uranga

1877an Laredon jaio bazan be, gurasoak sondikar-
rak ziran eta oso gazterik etorri zan Sondikara.

1906ean, apaizgoa artu eta Gatikan, Bermeo eta
Sondikan bertan iardun eban.

1950ean il zan beraren jaioterrian.

Asi 1909an eta gerrate zibilera arte, ainbat gramati-
ka, prosa liburu eta poesia emon ebazan argitara.

Azkuek beroren iztegian laguntaille legez aitatzen
dau.

Oso erabilliak ziran Zamarripa "El vascuence fa-
cilitado" gramatika eta iztegiak", 1913an argitara
emona (Bilboko Verdesenean)

1903an, Ordizian, Uztaritzen, Bergaran, Baigorri
eta Donostian izan zan saritua.

1927an, "Gora begira", emon ebazan poesi asko
eta asko, bertsolaritzan erabilli oi diran, badira bere
neurrietakoan.

Baita be, "Euskaldun Gudariak" argitara emon
eban.

1905ko urtean, Baigorriko euskal jaietan, bigarren
saria artu eban.

Nik be gaztetan erabilli neban Zamarriparen liburu
bat "Gramatika Vasca", beren bidez, ikasiaz nire
euskera.

Liburu au seigarren edizioa zan, 1947an argitara-
tua.

Agustin Arrien



Eguraldiaren iragarpena Lekeition

Señeruen egitekoa itsasoaren egoera begiratutea zan arrantzontzietan portutik urtetako baimena emon edo ez emoteko.

Egun senti aldera señeru bi, bakoitzak farol bat eta burnizko puntadun makilla artuz Atalaiarantza abiatzen ziran itsasoko egoera begiratuteko.

Gero ikusten eben ondo leiteken edo ez, arrantzara joatea.

Biek ados eta baikor izanda, señeru eurek biak Arranegiko kaleak zearkatuz patroien etxearean geldituz ate joka asten jakiezan makillagaz izenaz deitu eta esanaz : “Trastiak sartun”

Ostean Kofradian egoan gizon batek amar minutu jarraituen jotzen eban kanpaia arrantzontzi bakoitzeko deitzalari abisatuz. makume oneik arrantzale bakoitzari dei egiten eotsoen esanaz: -“urli ori... Gora Jaungoikoaren izenean “ (isenianmun). Domeka ta jaiegunetan _”Meza entzuteko “ geiagotuz.

Domeka ta jaiegunetan arrantzara uten bear ba eben, egun-sentiko Mezea entzun eikien. Portutik urtekeran bai patroiak eta bai arrantzaleak otoitz batzuk egiteko oitura betetan eben.

Señeruen eritzien arrantzontziek ezin ba eben lanik egin, kalez-kale ibiltzen ziran makilleaz tarraska “ra... ra...ra...” zaratea eginez.

Eretxi ez bardiñetan arrantzontzietako patroiak Atalayan batuten ziran bertan arrazoiak agertu ta ze erabagiak artu bear ziran konsultatzeko.

Alkar artean berba egin ostean Kofradian batuten ziran autaketa bat egiteko asmoagaz. Orretarako “Atabaka” izeneko kaobazko kutxatilla egoan zati bitan, bakoitza bere zulodun tapeagaz. Batean etxea eta bestean txalupea margotuakaz.

Patroi bakoitzak berari jagokon zuloan sartuten eban bola bat. Eta geiengo bolak eukezan zatikoak erabagiten eban itsarora joan ala legorrean gelditutea.

Beste zeregin bat be señeruen esku egoan, au da, itzasontziak lanean egozan bitartean denboreak txarrerera egiten baeban begiratutea. Eta alan balitz abisu emotea seña egokien bidez. Arrantzaleak autatzen eben portura itzuli edo ta arrantzan jarraitu.

Portura itzulita gero eguraldiak ohera egin ezkeroz, barrero deitutuen eutsien arrantzaleei, aurre-autaketaren bidez arrantzara joan edo ez erabagiteko.

J. Iñaki Madariaga Vidal
Munetxek itzulia



Eguraldiaren iragarpena Lekeition

ITXASONTZI ETA DEI EITTEKUEN ZERRENDA

ITXASONTZIAK

Bizi bedi Jesús
Begoñako Ama
Paloma Divina
San Luis Gonzaga
Ave María
Santa Elena

Juan Ramón
Ntra. Sra. del Socorro
Zeruko Izarra

Faro Santa Catalina
Faro Amandarri
Otoio
San Felicísimo
Corazón de Jesús
Ama Cuquita
Ama Antoñita

Urrosolo Urigüen
Urrosolo
Kalamua

Antiguako Ama

DEI EITTEKUAK

Francisca Anacabe Barainca
Katalin Arostegui
Teodora Abaroa Erquiaga
Teodora Abaroa Erquiaga
Pilar Erquiaga Murelaga
M^a Mercedes Guezuraga Bengoechea
Miren Arrasate Sesma
Begoña Ansotegi Chacartegui
Margarita Zugadi Iturraspe
Margari Iturbe Acarregui
Teresa Acarregui Aboitiz
Juanita Acarregui Aboitiz
Jesusa Acarregui Aboitiz
Daría Acarregui Aboitiz
M^a Teresa Anacabe Gabiola
Teodora Zumaran Iturbe
Milagros Erquiaga Marqués
M^a Jesús Barbarías Esnarrizaga
M^a Teresa Aboitiz Iriarte
M^a Teresa Aboitiz Iriarte
Josefita Arambarri Nachiondo
Josefina Zugadi Urrosolo
Josefina Zugadi Urrosolo
Teresa Garatea Bilbao
Ane Miren Sustaeta Badiola
M^a Luisa Uribarren Bilbao
Begoña Ansotegi Chacartegui

Cristo Rey
 Montserrat
 Kresaletan
 Torrontero
 Arnotegui

Ondarzabal
 Virgen de Dorleta

Ntra. Sra. del Rosario
 Agurtza
 Madre de la Antigua
 Dorotea
 Playa de Carraspio
 Amoroto
 Ludiko Atsegina
 Monte Lumentza
 Gure Ama
 Montre Negro
 Ama Mariana
 Marian
 Santa Rita
 Aita Guria

Karmele Goitia Urquiaga
 Nieves Mendazona Salinas
 Begoña Abaroa Erquiaga
 M^a Lourdes Murelaga Lecuona
 Josune Urquidi Anacabe
 Milagros Erquiaga Marqués
 Esperanza Erquiaga Marqués
 M^a Pilar Uscola Erquiaga
 Rita Uscola Erquiaga
 Aurora Escurza Infante
 M^a Rosario Celaya Goitia
 M^a Teresa Anacabe Gabiola
 Petra Zumaran Iturbe
 Josefina Arangüenaga Cortabitarte
 M^a Luisa Sesma Acarregui
 Rosario Urquidi Echave
 Teresa Murelaga Abascal
 Josefina Odria Sesma
 Julene Marqués Goicoechea
 Ana Mari Goenega Anacabe
 Nieves Cendoya Echebarrieta
 Josefina Cortazar Gabiola
 Josefina Cortazar Gabiola
 María Quintina Goenaga






Izarren ereinlaria

KAUNAS, Lituaniako erri bat da eta an giz-irudi bat daukie, bere izena “Izarren ereinlaria” da. Giz-irudi ori, egunez oso arrunta da eta ez dauka garrantzi aundirik, baña gaba eltzen danean, bizitza artuten dau eta bere izena esaten daun lez “Izarren ereinlariaz” biurtuten da.





JAPON ERRIA

(Euskera Sunamipean)

Japon edo Japongo erria da gaur egun geien aitatuena doguna, bai Ikusgallu-telebistan, eguneroko izparringietan edo ta gure arteko berbaldietan. Zoritxarrez barri txarrez lur jota ikusten dogulako da. Egun asko eztala ustebako lurikara indartsuena ta sunami itsa olatu erraldoien eragiñez ia Japongo lurralde guztia edo zati garrantzitsu bat ondamenen sartuta ikusten dogu. Oraingo onetan beste arazo kaltegarri andienen aiñakoa. Alan da be japondarrak eztira erabat kokildu. Erri guztia: agintari ta menpeko, jakintsu edo ez ikasiak, gizon ta emakume, zar eta gazte, danak bat eginda dabilta sekulako burrukan, garaituteko itxaropen eta alegiñetan...

Eredu bikaña bizidun guztiñtzako... Eta Euskaldunentzako be bai. Zergaitik ete dan ori? - Euskalduna gure nortasunean sekulako astinkada artu ta artuten gagozelako. Ez ote da ba egia Euskalerrri andik eta emendik bere-berea dan nortasunaren aurka aspaldi aspalditik jasotzen ari garala etenbageko astinaldi edo makillakadea?.

Zorionez japondarrak aurrera ekiteko gai ba dira, esan geinke euskaldunen artean be gai garala aurrera egiteko, arnasa dogun bitartean. Orañarte gure izate ta nortasuna gordetan jakin ba dogu aurrera ekin bear dogu danon artean. Danok eta bakarka. Al doguntxua betetan saiatuz. Eta EUSKERA gure nortasunaren susterra ta miuñña danez euskera gorde, euskera eskuratu, euskera erabili arro ta bape lotsa barik, etxean, kalean, gure artu emonetan. Iñor ezestu, mespreziatu edo zapaldu barik baña gurea dan AMA bertan bera itxi barik, Jaungoikoak jakituriz eta maitasun andienaz aukeratu deuskuna.

Au da gaurko gure Batzarraren esan naia: gure bideak barrizteu ta tinko ta irmo, Jainko gure Egilleren laguntzaz eten barik aurrera ekiteko.

(Munetxe)



Euskalerria edo Euskadi

“Berezko sorterri edo aberria da” (IV)

ERDI MENDEA.

Sarrera txiki bat egin bear dautsagu erdi mende oneri, emen sortu ta sendotu ziralako Europako jaurpide barriak, gaurko egunerarte etorri jakuzan erregetzazko antola barriekin.

Erdi mendea esaten jako: 476an Godoak Erromatarren Mendebaleko kaizertza ezereztu ebenetik, Turkoak 1.453an, Konstatinopla menperatu eben arteko aldiari.

Edo ta erromatarrak suntsitu ziranetik, 1.440-1.450 urte bitartean, irarkola⁽¹⁾, irarritzeko papera⁽²⁾, bolbora edo lerrautsa⁽³⁾, itsas orratza⁽⁴⁾, itsas ontzien oial mugikorraren asmaketak lortuta, Amerikaren agerketa ondorioz lurralde nagusi bietan asi ziran itsas billaketararte.

Bai, pizkunde⁽⁵⁾ edo ta Eleizak Luterotar Martinekin asita euki ebazan berrikuntzazko⁽⁶⁾ arazo aldiak deritson arte.

Erdi-mendeko Lenengo zati oneitan, erri edo leiñuzko sendi bakotzak, euren batzar nagusi bidez arnasa apur bat euki ebelako, lurralde bakotzaren jaurkintzazko antolamendu baten ezartzeko, areik eta mauritarrak VIII gizaldietan sartu eutzien urduritasunetik askatu arte.

Eta zelan eleiza katolikuak errege guztien gaiñetik, izan zan aolkularitzazko agintari nagusia.

Bigarren zatian ikusi daiguzan gaur arteko eguneraiño, zer gertatu dan gure gaurko lur, aize, ur eta gizaren nortasunezko askatasunaren eskubideakaz, ainbeste zentzungabeko nastetasunagaz agertu gindezan.

ELEIZA KATOLIKOAREN NAUSITASUNA.

Europako sartaldean, erromatarren kaizar agintarritza Vn gizaldian godoak ezereztu, eta ekialdeko kaizartza 1.453ko urtean Turkoak menperatuta, European besteen gai-ezean mundua betiko erromatar asmakizunean batzangotu ta katoliko alderdikidetzeko, Aita Santua bere ezuskortasun edo uts ezintasunezko siniskai izaera bidetik agertu zan buru, errege ta danon gaiñetik. Errigizarateak alkarganatu⁽⁷⁾ ta jendekuntzatzeko⁽⁸⁾ aolkularitzazko aginte nagusian.

Eta 325ean Nizeako eleiz batzarrean, norkerizko lapurkeriz asmatu zan katolikotasunaren aberrizko alderdikeri orren arau zentzuan iraun dauen Eu-

(1) Irarkola = imprenta. (2) Irarritzeko papera = papel para imprimir. (3) Lerrautsa = polvora. (4) Itsas-orratza = brujula. (5) Pizkunde = renacimiento. (6) Berrrikuntzazko = reforma. (7) Alkarganatu = mancomunar, coordinar, asociar, aliar, agrupar, (con)federar. (8) Jendekuntzatzeko = acción de civilizar, zibilizar.

ropako edesti guztia, iru baldintza oneikaz gaurko egunerarte:

- Aurrerakuntzazko Greziaren jakituria.
- Menperatzailletasunezko erromatar legeak.
- Eta munduko giza Katoliko aberkoi batzangozteko asmotan, alderdikeri orreitan ezartzen diran araukaz.

Txeberatuta geratu ziran baiña, eta zelango sare arteko baldintzakin irasita geratu ziran ziurtatzeko, leiñu edo erri errege jaun baktzari, euren kondairako aurkezpen labur bat eginda ulertuko dogu.

FRANTZIKO LURRALDEAREN LENENGO ERREGETZAK.

Frantziako lurraldea gaurko egunean, ekialdeko iparraldean Belgika, Luxenburgo ta Alemania. Ekialdean Alemania, Suiza ta Italia. Egoaldean lurrarteko itsasoa, Espania ta Bizkaiko itsas golkoagaitik mugatuta dago.

Frantziako lurraldeetan, naita irudizko errege oitura ori ariñautik etorri, Keltiar leiñuak izan ziran Kristoren aurretik, euren jaurkintzarako erregeak ipini ebezanak.

K.a. VIIn gizaldian Keltiarrak menpetu eben galiako lurraldea, lurrarteko itsasoa, Alpes, Rin ibaia,

Atlant itsasoa eta Auñamendi kateagaz mugatuta egoana, eta erromatarrek Alpes andiko lurraldeak esaten eutsoenai Zesarrek K.a. 58-51ko urtetan menperatuta, iru erri aldetan banandu ebana: Akitania, Keltika eta Belgika.

Keltiar franko leiñuak iparraldeko Loira ibaitik britaniako itsas ertzeraiño kokatu ziran, eta Klodobeo erregeak 481-511ko urte bitartean Merobinjioaren errege leiñua sortu ta euren alpertasun bidez maldaberan sartuta, mauritarren Europako zabal-kuntzari, euren etxe zain Karlos Martelek, Tours eta Poitiersen aurka urtenda 732ko urtean geratu ebazan, Europako katolikotasuna euren galzoritik askatuz.

Beren seme Pipino Laburrak, IIIIn Txilderiko merobinjio erregea bota eban agintaritzatik eta 751eko urtean Karolinjioaren errege leiñua irasi eban.

Karlomagno bere semea izan zan urrengo errege, eta Lonbardo ta Sajoitarrak menperatu ondoren, IIIIn Leon Aita santuak 800 urteko gabonetan Erromara deituta, Iparraldeko Itsasotik Ebro ibairaiño, eta mendebaleko Atlant Itsasotik ekialdean Txekoslobakiako Boemiaraiño Erromatar kaisarleri sakratuaren Inperator edo Augusto Kaizar Jaun, Erromako San Pedroren eleizan koroatu eban.





Karlomagno 814an il zanetik, karolinjitarren kaizertza ezeretuten asi zan, eta Berduneko itun edo egiunetik kaizertza iru zatitan bananduta agertu ondoren, Karlos Buru Soillak aginduten eban zati-tik urtengo eban, gaur ezagutzen dogun Frantziko lurraldea itxuratzen asiko zana.

ALEMANIAKO LURRALDEAREN LENENGO ERREGEAK.

Alemaniaiko lurraldean Keltiarren leiñu zarrenak Teutoiak eta Zinbriok izan ziran, eta K.a. 102-101eko urte inguruan, Kaio Mario erromatar gudal nagusiagaitik azpiratuta, aleman, franko, lonbardo, bisigodo ta ostrogodoak Rin, Elba ibaiak eta Italia-ko iparraldeko lurraldeetan kokatuta geratu ziran.

Karlomagnok kaizartza aundi bat antolatu eban, K.o. 814an il zanean baiña, bere iru bir seme edo billobaren artean banaduta geratu zan.

Feudo Jaun anaien arteko borroka bidetik makal agertuta, indarrez normando, eslabo eta majiarestarrak sartu jakiezan.

K.o. 962an lurralde orreitan I Oton aundia errege zala, XIIIn Juan Aita Santuak, Europaren erdi aldea, Italiako lurraldearen iru zatitik bi eta Frantziaren ekialdeko erromatar kaizar sakratua izendatu ondoren, kaizar eta Aita Santuaren zein aginte geiago euki ebenagaitik asarratuta, 963an Otonek, XIIIn Juan Aita santua bere jaraulkitik kendu eban, eta VIIIIn Leon Aita Santua ezarri.

ERDI UGARTE EDO PENINSULA ONEN LURRALDEAN, LEENENGO ERREGEAK.

Neanderthal eta gero Kromañon euskaldunak izan ziran erdi ugarte onetan lenengoz bizi ziranak.

Gero ekialdetik etorritako kamita leiñu (?) edo ibe-rotarrak sartu ziran egoaldetik.

Eta denbora gitxi barru iparraldeko Auñamendi mendikate artetik keltarrak sartu ziran, bien artean Keltiberiaren erria osotuta.

Erdi ugarte edo peninsula onen egoaldean Euskal leiñuak aienatu ziran ?.

Neure zalantzak daukadaz. Euskerazaintzako batzar baten Bizente Latiegik aurkeztu ebalako ikertzaille gazte batzuk aurkituta, arrian idatzitako esaera batzuk, keltiar izkuntzan baiño, euskeraz irakurten ziranak.

Euskaldunak keltiar menpean bizi ete giñan ?.

Ez dot uste, euren giza barrenean askatasunaren eritzikoak ziralako.

K.a. XIIIn gizaldean fenizioak etorri ziran, Kadizen, Gadirreko saltokia irasita⁽¹⁾, gero Malaka⁽²⁾, Hispali⁽³⁾ eta abar.

K.a. VIIn gizaldian Griegoak agertu ziran, eta auek be Emporion⁽⁴⁾, Rhode⁽⁵⁾, Dianion⁽⁶⁾, eta abar saltokiko uriak irasita.

Laster asi ziran borrokan feniziarrakin, eta K.a. 530ean kartangokoak fenizitarrai laguntzen etorri ta lurralde aundiakin jabetu ziran, baiña K.a. IIIIn gizaldian guztiz kanporatu ebezan erdi ugarteko lurraldeetatik.

K.a. 238an Amilkar Barka kartangotarra etorri zan ostera, eta Afrikako iparraldean erromatarrengaitik Zamako borrokan il eta euren indarrak azpiratuta kanporatu ebazan.

Amilkar Barkari emoten jako Barzinoren⁽⁷⁾ sorraldia.

Amilkar Barkaren suin Asdrubal eta bere seme Anibalek ostera agertuta, Tajo ibai ta Ebroraiño-ko lurraldeakin jabetu ziran, eta auek Saguntoko uria ezereztu ebenean asiera emon jakon K.a. 218-202ko urte bitartean bigarren Guda Punikari erromatarren aurka, eta onek jabetu eta kartagotarrak kanporatuta, asi zan erromatarren menpeko aldia.

Erromatarrek erdi ugarte onen iparraldetik euskaldunak menperatzen ibili ta ikusi ondoren Euskalerrriaren lurraldeko leiñu gizarteak zelango gogortasunagaz aurre egiten eutsen.



(1) Gadir = Kadiz, Europakko lenengo uria dala esaten jako. (2) Malaka = Malaga. (3) Hispali = Sevilla. (4) Emporion = Ampurias. (5) Rhode = Rosas. (6) Dianion = Denia. (7) Barzino = Barcelona.



Eta Euskal leiñuak be oartuta, bide orretatik iraun ezkeru euren euskal senditasunaren izaera galzorian ipinten eballa, erromatarrak euren indar nagusiekin ez zirala geratuko euren garaipena lortu arte, erromatarren gudalozteetan lerrokatu ziran. Euren zintzotasunagaitik ardura aundiko aginteak artuta Kaizarren zaintza inguruan.

Ez zan gertatu bardiña kantabro ta Asturiasekoakin, ta azpiratuta geratu ziran guztiz K.a. 19n urtean.

Eta erromatarren azpikaritzan, latin eta euskeraren bitartean sortu ziran Asturiasen bable, Burgos, Araba eta kantabria bitartean gaztelera, Ebro ibaiaren egoaldeko ibarrean eta Aragoiko iparralde bitartean gaur katalan esaten jakien latin kumeak, Europaren iparraldeko lurretan bardin sortu zan antzera.

K.o. 409an Auñamendiko mendi kateetatik Suebo, Bandalo ta Alanoak sartuta, erromatar agintariek bisigodoai eskatu eutsoen laguntza, eta auek Ataulfo ta bere ondorengoak izan ziranagaitik Sueboak azpiratuta, Bandalo ta Alanoak bota ebezan, eta 477an erromako jaurkintzaren jabetasunagaz egin

ziran, askeneko erromatar kaizerra bere errege aulkitik bota ebenean.



Bisigodoek Frantziko lurraldeetan agintaritzan galduten joanda, Leobijildo Toledon kokatu eben bere jaurkintzaren errege aulkia, eta lurrarteko itsas jaurkintzan Bizanziok euki eban agintaritzari egoaldeko lur geienak kenduta eta Sueboak azpiratuta, arrianismo erlijioa gura eben ezarri, eta naita bere seme Ermenejilo katolikoa il arren, ez eben lortu erlijiozko batasunik, areik eta bere seme I Rekaredok 589an Toledoko eleiz batzarrean lortu arte.

711n mauritarrak agertu ziran eta bisigodoak azpiratuz ta 1.492rarte erdi ugarte au euren agindupean egonda, 718an Kobadongako borroka ostetik Pelayok, Asturiaseko Kangas de Onisen sortuko eban aldi berriko lenengo erregetza, gero I Alfonsorekin iraungo ebana.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.011n, Zezeilla edo Otsaillaren 7an

#Euskaldun barrientzat

Zazpi utsak



Sudoku

9		6				1		
2	1		4		7	5		
	3		2	9		4		
	5		7					9
	2	3	6		9	7	1	
8					5		4	
		2		1	6		8	
		9	3		8		7	1
		4				3		6

6	3	3	2	7	9	4	8	1
1	7	8	4	3	6	5	9	8
4	8	6	9	1	5	3	2	7
2	4	6	5	3	1	7	8	9
5	1	7	2	4	8	3	9	6
9	7	8	6	9	7	1	5	4
4	2	3	6	8	9	7	1	5
6	5	1	7	2	4	8	3	9
7	3	5	2	9	1	4	6	8
2	1	8	4	6	7	5	9	3
9	4	6	5	3	1	2	7	8

Ikasten



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzekodiru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Gargantua

Ikusi mendizaleak
baso eta zelaiak,
mendi tontor gainera
igon bear dogu.
Ez nekeak, ezta bide txarrak
gora, gora Euskalerria.
Gu euskaldunak gara
Euskalerrikoak.

emen mendi tontorrean
euskal lurren artean
begiak zabaldurik
biotza erreta.
ain ederra, ain polita da ta,
gora, gora Euskalerria.
Gu euskaldunak gara
Euskalerrikoak.

